

Bolivar askatzailea eta Eliza

Deia, 1983-07-04.

Historian zehar Elizak maizegi jokatu du politikan, eta honek dituen arriskueta erori ere.

Guhauk ongi ikusi eta nozitu izan dugun bezala.

Espainiak Ameriketara zituen koloniak askatzeko borroketan Simon Bolivar XIXgo hasieran sartu zenean, Eliza izan zen aurkitu zuen oztopo handienetako bat. Erregeak Espainiatik bidaltzen zizkion gizon eta armaz gainera, zeruko aingeru eta santuak ere aurka zituen; zerukoetan ere Fernando VIIak agintzen baitzuen.

Caracaseko Artzapezpiku zen Coll y Prat, katalana, lekuko.

Oso une txarrean bidali zuten gizona baldarkeriak egitera, caracasdarrek Independentzia oihukatu zuten 1810go urte berean heldu baitzen, eta Monarkiaren agindu estuen sokaz lotua noski, ahaleginak eginda ere ez zuen Erregearen gustokorik egin, eta honek bota egin zuen.

Hau dena nahiko jakina da; hain jakina ez dena, zera da: Bolivarrek borroka luze honek iraun zituen hamabi urtetan (1810-1823) Vatikanorekin izan zuen harreman politikoa.

Hau jakinarazi diguna Zumarragan jaio (1891) eta Erromako Gregorianako irakasle izan zen *Pedro de Leturia* josulaguna izan zen. Honek aztertu eta argitaratu zuen: *Acción diplomática de Bolívar ante Pío VII*. Orain, Juan A. Egurenek zabaldu du: "La política religiosa de Bolívar en la Crítica de Pedro Leturia" izenburu duen idazlan batetan, Eusko Jaurlaritzak argitara berria duen: *El Bolívar de los vascos* liburuan.

Hara lan argi honen puntu nagusienak:

1. XVIIIan, Gotzaiak eta beste izentatzeko ahalmena Aita Sainduen eskuetatik erregeenetara pasa zen. 2. Bolivarrek Espainiako Monarkiaren ordezkariak bota eta Errepublikak sortzen hasi zenean. Herri errepublikaren mende jarri nahi izan zuen. 3. Elizak Ameriketako herrietan eragin handia zuen, noski. 4. Eragin honen suak ba zuen hausporik: Pío VIIak 1816go Enziklika bidez agindu zien Ameriketako gotzai eta fededunei Erregeari sor ziotela zintzotasuna eta mendea. 5. Bolivarrek egin zituen, ordezkari, bitartez, ahaleginak. Alperrikan denak. Pio VII hil, eta Leon XII oraindik itsu jarraitu zuen Errege Katoliko zen Fernando VIIren aldeko Enziklika batetan (1824); baina hiru urte gero (1827) Aita Sainduak Bogota eta Caracasen falta ziren Artzapezpikuak azkenean izentatu behar izan zituen, eta ez edonor, Bolivar-en alde borrokatu ziren bi elizgizon baino.

Bolivarrek keinu politiko batez azpimarratu nahi izan zuen gertaldia: bankete handi bat eskeini eta bertan hitz gogoangarri hoiek esan zituen: "Elizaren eta Colombiaren onak elkartzeko dira gaur: zuen bitartez lotzen dira sakratuak ziren zeru-lurren lokarriak".